

Aldiri, 2013. IV. 16,10-11, ISSN 1889-7185  
 Jasotze-data: 2013-08-31/ Onarpen-data: 2013-10-04

Urtzi Ugalde °



## +Net

2150. urtea, biribila bezain beroa dakarren udaberria espero da Euskal Herrian, bai eta mundu osoan ere. Iritzi publikoa hankaz gora jarri duen *Nazioarteko Telekomunikaziorako Agentziaren* azken berriak dioenez: «Internet sarearen egitura goitik behera berrituko da», eta zerbitzuen azkartasun eta segurtasunaren esparruan onura ikaragarriak ekarriko omen ditu. «Mundu postmodernoa- ren irekiera-aro» bezala izendatuko dute batzuek, «digitalizazioaren iraultza» besteek; ezkorrenek, aldiz, teknologia exa-berrituak kontrolatzen dituztenen diktadura baten atarian gaudela baieztatzen dute, aro digitalaren behin betiko amatatzearekin batera datorrena.

Aurreko mendearekin batera seinale analogoa indargabetu zutenetik ez da horrelakorik berriro ere bizi munduan. Sistema kapitalistaren suspertzea (grafenoan oinarrituriko ekoizpenaren indartzea), gobernu eta nazioarteko erakundeen kontrola (espioitza legala eta egituratua) zein jendartearen «komunikazio» eredu (indibidualista) berrien estimulua berpiztear da Europa eta AEB arteko telekomunikaziorako aliantza jaioberriaren eskutik. Izan ere, orain arte INTERNET sarean existitzen zen egitura bera eta gordetzen zuen informazio guztia mutazio-fase batean sartu nahi dute, den-dena aldatuz: informazioaren zifratzea, abiadura, neurketa, zerbitzariak, telefono-linea edo telebista ere sare berri honetan bateratuko dituztelarik. Hori guztia, lurraren mugetatik at dauden sateliteek kudeatzeko agindua igorri diete dagoeneko.

+ NET deituriko sarea jaiotzeaz dago. Eta sarean jarraitu nahi izanez gero (bizirauteko kasik beharrezkoa den honetan), merkatu berri honetan inbertsio potoloa egitea beharrezkoa izango da: ordenagailu zein mugikorren tresna berrituak, saretearen kontratazioak eta memoria fisiko zein digitalen birzifratzea ekarriko ditu besteak beste. Hau da, Interneten zegoen informazio guztia mantendu edota sare berrira egokitu nahi izanez gero, izugarritzko

berreskuratze-tasak ezarriko zaizkio interesdunari. Nazioarteko telekomunikazioen segurtasunerako legedia errespetatuko delako zinpeko aitortpena ere eskatuko da aurrerantzean.

Berriro ere, klase-borrokaren begi zaharretatik, pobreen eta aberatsen arteko lubaki berria ezarriko da. Komunikazioa, erdietsitako eskubide izatetik gutxi batzuen negozio izatera pasako baita. Hori bakarrik ez, paperezko prentsa zein liburuen idazketa desagertua dagoen honetan, memoria historikoa bera digitalizaturik eta orain artean «seguru» mantendu denean, betirako galdua edota ezkutatua gera daiteke, bai behintzat langileriak eta jendarte mugimenduen araberako kontakizunean oinarritutakoa. Zer esanik ez ziberkontrolerako emango den jauzi kualitatiboaz, edozein unetan edozein gailu zelatatua izango da legalitatearen eta segurtasunaren «bermerako». Eta hori gutxi balitz, irradiazio-uhinen goratze-latsa ere aurreikusten da, izaki bizidun guztien osasun-gaitzak areagotu ditzaketanak.

Bildeberg, munduko 150 boteretsuenen klubaren esku iluna dagoela honen guztiaren atzetik filtratu da Txina zein Afri-kako komunikabide batzuen erredakzio-ahotik, munduaren logika aldatu eta boterearen balantza XXI. mendean zegoen bezala berrezartzeko nahia azaltzen du- elarik, potentzia zahar-berri horien kalterako, noski. Ez da kasualitatea Txina mundu mailan garatuen dagoenean eta Afrika loraldi ekonomikoan, herrialdeen arteko batasun- akordioak islatzen diren honetan, berriz ere AEBk Europari belarritik tiraka maniobra berri hau mahai gainean jartzea. Amerikako gainerako herrialdeek beren aldetik, poliki baina sendotzen dihardute beren defentsarako zutabe ekonomiko, politiko zein militarrik, beti bezala, ondoko bizilagun arriskutsuaren mehatxu iraunkor horretan har- rrapaturik.

Gainera, azken urteetan *Wikileaks*, *Anonymous* eta tokian tokiko eskubide zibil-politikoaren defentsarako mugimenduek hacktibismoa eta sare-borroka erabat suspertzea lortu dute, gobernuen ustelkeria han eta hemen azalaraziz, web orri ofizialak blokeatuz, kale-protesta arrakastatsuak antolatuz, jendartearentzako komunikazio-gune askeak eskainiz, besteak beste. Esan daiteke, militarren erraminta zahar eta komertzializatu berri hura ehun urte eta gero, gudarako barrikada ezin hobea bihurtu dela mundu kapitalista hau eraldatu nahi eta mundu berri baten eraikitze-lanetan dauden pertsona eta mugimenduentzat. Free p2p filosofian oinarritutako eta kontrolpetik kanpo dauden ziberkomunitateak edonon aurki daitezke sarean, edozein formatutan edozer partekatze ahalmena ematen diotenak gizarte zibilari, eta sistema politikoa kolokan jartzeko hordagoa bilakatu da azkenaldian.

Horren aurrean, arkitektura digitala hankaz gora jartzeko estrategiari argi berdea eman diote inteligentzia-zerbitzuek, aldi berean herritar zein herrialde txikien burujabetasun-prozesuak neutralizatu, oroimen historikoa eta informazio-jarioa bahitu eta boteretsuen interesen arabera esplotazio ekonomikoa ahalbidetzeko. Zaila da jakitea digitalizazioaren amatatzea aurreko mendeko kapitalisten agendan egon ote zen, edo egungo botere-balantzak utzitako bidegurutzean azken orduan hartutako erabakiei erantzuten dien.

Euskal Herrian dagoeneko usaintzen hasia da iraultza berri bat. Bakea erdietsirik, independentzia-prozesua abiatu eta ipar-hegoaren arteko herrien egituraketa demokratikoa hasi zenetik ez da horrelako girorik izan. Askatasun-printzipioak galarazten dituen + NET sarearen lehen pausok euskal aberatsen elkarte patronalen babesa jaso dute eta ezker mugimendua sutsuki sumindu. Azken horiek herritarren eskubideak arrisku larrian ikusten dituzte hamarkadetako borroka lortutako ga-

raipenak deusezta daitezkeelako. Poliki bada ere, historia berri baten kontakizuna hastera doa zeinetan norik zer ezartzen duen botere-posizioaren arabera izango den, komunikazio-bide, jabetza eta gaitasun ekonomikoaren arabera alegia.

Dantza hasi da. Gurean, AMALURRA deituriko mugimendu iraultzailea sortu berri dela informatu dute polizia-iturriek. Mundu mailan, *NET Break* delakoaren existentziaz ere ohartu dira. Talde horiek, oraindik ekintzarik egin ez badute ere, inposatuko den sarearen aurkako jardunean kokatzen dituzte. «*Komunikazioaren iraultza*» aldarrikatzen duten paperezko eskuliburuak agertzen hasi dira hainbat herritako bazterretan. Deshazkudearen haritik, giza harreman zuzenak bultzatu eta garapen itsua zein teknokeriaren kontrako ideiak batzen dira aipatu idazkietan. Jendeak harriturik hartu ditu, azken hamarkadan ez baita liburu, ez inprenta, ez liburutegirik zutik mantendu haien inguruan.

Dirudienez, talde horietako kideen artean komunikatzeko, zenbait bailara zein menditako zuhaitzetan eginiko postontziak erabiltzen dituzte, inongo sare eta mezu digitalik erabili gabe, kontrolaren arriskutik at eta ohitura zaharrak berreskuratu nahian. Inprenta klandestinoak ere berpiztu dituzte abandonaturiko industria zaharretatik hartutako makinaria konponduta, baserri eta etxeetako sotoetan. Antza denez, borroka moldeak ere irauli egin nahi dituen mugimendua izango da hau, komunikazioaren esparruan irudimena eta sorkuntza batzea bilatuko duena, mende aurreko pankarta, kartel eta esku-orrietatik haratago berrikuntza erdiesteko helburuarekin. Gauza bakarra mantentzen da garai zaharrenetatik: pintada edo graffitiak. Asko dira *anai handiak* kameraz jositako kaleetan zehar aurki daitezkeenak oraindik ere

© Urtzi Ugalde politologoa da.

